

Izena : _____ Data: _____

AHATEAK ETA DORTOKA

Putzu- zulo batean bi ahate eta dortoka bat bizi omen ziren.
Toki berean bizi ziren eta horregatik oso lagunak ziren.
Garai batean putzua lehortu egin zen eta urik gabe geratu ziren.
Ahateek orduan lekuz aldatzea erabaki zuten ura behar zuten eta.

Dortoka laguna agurtzera joan ziren:

- Gu bagoaz hemendik, bestela ur falta ikaragarria izango dugu.

Dortokak, berriz:

- Zuek ez duzue inoiz ur faltarik izan. Leku batean ez bada bestean aurkitzen duzue. Ni naiz hemen zorigaitzekoa. Aizue, zuekin joan nahi dut nik ere, bestela hil egingo naiz eta.

Orduan ahateek esan zioten:

- Eramango zaitugu geurekin, baina bidean ez duzula inorekin hitz egingo agindu behar diguzu.

- Konforme, baina nola eramango nauzue?

- Egur-zati bat hartuko dugu. Nik mutur batetik helduko diot eta honek bestetik; zu erdian eramango zaitugu.


Oso pozik jarri zen dortoka. Airean zeramaten, haur batzuk ikusi zituztenean. Haurrak ezin sinetsirik zeuden.

- Begira, begira, dortoka hegaka!

Hau entzutean, dortoka harro-harro jarri zen eta erantzun zien:

- Zuek baino gehiago naiz.

Eta ahoa irekitzean, lurrera erori zen eta bertan hil.



ULERMENA

1. Non **bizi** ziren animaliak?

.....

2. Zergatik erabaki zuten alde egitea?

.....

.....

3. Ahateek:

- Dortoka mesprezatu zuten
- Eramatea erabaki zuten
- Agurtu zuten.

4. Zer erabili zuten dortoka eramateko?

.....

5. Esan Egia edo Gezurra den:

- Putzua lehortu zen ura edan zutelako,
- Putzua lehortu zen euri gutxi egin zuelako.
- Putzua lehortu zen baina ez dakigu zergatik?

6. Zein baldintza jarri zioten ahateek dortokari?

.....

7. Zergatik hil zen dortoka?

.....

8. Fija zaitez:

Guk zu eramango ZAITUGU

Guk zu bultzatuko _____

Guk zu ikusiko ZAITUGU

Haiek zu agurtuko _____

Guk zu altxatuko _____

Nik zu ikusiko _____